

# EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN EKITEN

2023



prESStatzen eta  
Sendotzen programetako  
FORMAKUNTZA SAIO IREKIAK

**URTARRILA-APIRILA**



[presstatzen.reaseuskadi.eus](https://presstatzen.reaseuskadi.eus)

## prESStatzen eta Sendotzen programak Ekonopoloaren barruan kokatzen dira

EKONOPOLOa Bilbao Ekintzak eta REAS Euskadik koordinatzen duten Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Poloa (ESS) da. Bilboko San Frantzisko auzoan kokatua, ESSaren inguruan lan egiten duten hainbat eragileen topagunea da, esperientziak, proiektuak eta baliabideak partekatzeko erreferentziazko espazioa. Aldi beran, ESSaren bozgorailu eta enpresa-ekimen berrien azeleragailu ere bada.

### Antolatzaileak



REAS  
EUSKADI



### Parte-hartzaileak

REAS Euskadiren  
Ekintzailletza taldea



**Ekiten ari zara eta zure proiektuari ikuspegi sozialetik buelta bat ematea gustatuko litzaizuke?**

**Ekonomia Sozial eta Solidarioan sakondu eta zure erakundea nola alda daitekeen hausnartzea gustatuko litzaizuke?**



# SAIO IREKIAK

● prESStatzen saio irekiak ekin nahi duten pertsona edo proiektuentzat.

🕒 10:00etatik 11:15etara

● Sendotzen saio irekiak jada martxan dauden eta finkatzea helburu duten erakundeentzat.

🕒 10:00etatik 11:15etara

- 24** URTARRILA | **EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAN EKITEN**  
Ekonomia Solidarioaren esparru teorikoa aurkeztuko da, baita haren printzipioak ere. Era berean, ekintzailetza sozialari eta solidarioari lotutako berezitasunak, abantailak eta modalitateak aurkeztuko dira.
- 31** URTARRILA | **NEGOZIO-EREDUA EGOKITUZ: CANVAS SOZIALA ETA GJHEN TXERTATZEA**  
Canvas Soziala tresna ezagutzera emango da eta kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak nabarmenduko dira. GJHak eta hauek negozio-ereduaren barruan sartzeko moduak ere aurkeztuko dira.
- 7** OTSAILA | **ERAKUNDE BIZIGARRIAK: IKUSPEGI EZ-PATRIARKALETATIK ERAIKITAKO ERAKUNDE-EREDUAK**  
"Erakunde Bizigarria" kontzeptua eta haren berezitasunak azalduko dira. Halaber, hainbat tresna aurkeztuko dira proiektuetan ikuspegi feminista era transbertsalean gehitzeko.
- 14** OTSAILA | **EKONOMIA- ETA FINANTZA- PROPOSAMENA BERRIKUSTEN (2)**  
2022ko azaroan Sendotzen 1. moduluaren barruan egindako saioaren jarraipena da. Lehenik, aurreko saioa osatuko da, aurrekontuari, balantzeari eta galdu-irabazien kontuari buruzko informazioa osatuz. Bigarrenik, lanak onartzeko irizpideak joratuko dira, baita nola balioetsi eta nola gainditu iruzurgilearen sindromea ere.
- 28** OTSAILA | **MARKETIN PLAN JASANGARRI ETA EKOLOGIKOA**  
Lehenengo zatian, jasangarritasuna eta ekologia kontuan hartuko dituen marketin-plan bat garatzeko gakoak azalduko dira, ESSaren balioekin bat etorritz.
- 7** MARTXOA | **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA**  
"Irisgarritasun Unibertsala" kontzeptua azalduko da, baita erakundeen barruan inplementatzeko gakoak ere.
- 21** MARTXOA | **LAN-HARREMAN IRAUNKORRAK GARATZEN**  
ESSaren printzipioetako bat lan duina da. Printzipio horrek praktikan zer suposatzen duen aztertuko da, bai zati estrategikotik, baita alderdi operatibotik ere, lan-harremanak garatzeko dauden modalitate ezberdinak ezagutuz: kontratuak, lankidetzak, bazkideen zabalkuntza, etab.
- 28** MARTXOA | **JANTZI JURIDIKOA: ESS ERAKUNDE BAT ERATZEKO EREDUAK ETA IZAPIDEAK**  
ESSaren esparruan dauden eredu juridikoak aurkeztuko dira, baita hauen berezitasunak eta abantailak ere.
- 18** APIRILA | **ANIZTASUNA ESS-KO ERAKUNDEETAN**  
Lehenengo zatian, aniztasunari buruzko gogoeta egingo da, hiru esparrutako esperientziak bilduko dituen mahai-inguru baten bitartez: sexuala eta generokoa, multikulturala eta funtzionala. Bigarren zatian, erakundeen barruan aniztasuna kudeatzeko estrategiak identifikatzeko dinamikak egingo dira.

🕒 Dohako saioak.

📍 Formakuntza EKONOPOLO gunean egingo da, Harrobi plaza 4, 1. solairuan, 48003 Bilbon.

💬 Saioak gaztelaniaz egingo dira, ekarpenak euskaraz egiteko aukerarekin.





# Gurekin ontziratu nahi duzue?

## IZEN-EMATEA

Saio batean edo gehiagotan izena emateko,  
sartu [presstatzen.reaseuskadi.eus](https://presstatzen.reaseuskadi.eus) webgunean

Zerbait kontsultatu nahi badiguzu, idatzi  
[presstatzen@reaseuskadi.eus](mailto:presstatzen@reaseuskadi.eus) helbidera.

